

**ZIENTZIA ETA BERRIKUNTZA MINISTERIOAK UPV/EHUn "JAKINTZA
SORTZEKO PROIEKTUEN" 2023ko DEIALDIARI LOTUTAKO DOKTOREAK
PRESTATZEKO DOKTORATU AURREKO KONTRATAZIORAKO
APARTEKO DEIALDIA**

**Ebaluaziorako onartutako eta baztertutako eskaeren behin
behineko zerrenda**

Eskaerak aurkezteko epea amaitu ondoren, Ikerketa Errektoretzako Ikerketa Kudeatzeko Zuzendaritzak aurkeztutako eskaerak berrikusi ditu, hautagai bakoitzak deialdian eskatutako dokumentazio guztia aurkeztu duela egiaztatzeko, honako alderdi hauek azpimarratuz:

- a) Eskatzaileek 4. eta 7. oinarrietan jasotako baldintzak betetzea.
- b) Deialdiaren I. eranskineko proiektu bakoitzean jasotako baldintzak betetzea.
- c) Proiektu bakoitzean baloratu beharreko merezimenduak epaimahaira bidaliko dira.

Egiaztapen horren ondorioz,

ERABAKI DA onartutako eta baztertutako hautagaien behin-behineko zerrenda Ikerketa Errektoreordetzaren webgunean argitaratzea.

Adierazitako akatsak zuzentzeko edo nahi dituzten alegazioak aurkezteko, 5 egun balioduneko epea izango da, argitaratu eta hurrengo egunetik hasita (**2025eko otsailaren 26ra arte**). Epe hori igaro ondoren, zuzendu gabeko eskaerak atzera egindakotzat joko dira.

Dokumentazioa aurkezteko:

Deialdiaren 7.1. oinarrian eskabideak aurkezteko ezarritako bide berberak erabiliz aurkeztu beharko dira agiriak.

Aipatutako aurkezpen-bide guztiek balio bera dute, eta beraz, horietako bat bakarrik erabiltzeko eskatzen zaie interesdunei.

Leioan, 2025eko otsailaren 19an.

IKERKETARAKO GIZA BALIABIDEEN ATALA
Ikerketaren Arloko Errektoreordetza

BIZKAIKO CAMPUSA
CAMPUS DE BIZKAIA
Sarriena Auzoa, z/g
48940 LEIOA